



Berrizbeitialdekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Katalanena
Ahozkoa: Berrisbéitti



43° 10' 7"

2° 34' 36"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casa accesoria de Berrizveitia en tres cuerpos unidos... en dicho barrio del Sur consta de una vivienda, conteniendo en el piso llano cocina y tres cuadras, en el piso principall sala, un cuarto y pajares: en el piso segundo otra sala y cuarto y encima de estos camarote, y a su nivel en uno de los cuerpos camarote. Ocupa su planta solar doscientos setenta y siete metros y sesenta y nueve décímetros..."

DJE 3/178 or. (1877)

Berrizbeitia (**Ikus Berrizbeitia**) baserriaren ondoko eranskina edo arnaga dugu honako hau. Eraikin honen gaineko aipuak XIX. mendekoak dira, eta lehen erreferentzia 1825ean egindako polizia-errolakoak da, bertan *Arnaga de Berrizveitia* agertzen zaigularik. XX. mendean, aldiz, Berrizko Udalak egindako errolde-tan (1910 eta 1967) *Berrizbeitia accesoria* moduan jasotzen da. Antza, aldeko eraikin honetan baserriaren errenteroak bizi ziren. Berriztarren artean, eraikin biak *Berrisbéitti* moduan ezagutu badira ere, azken hori *Katalan* moduan ere ezagutzen da. Jatorrizko *Berrizbeitia* baserria bereizteko, ostera, "*andikua*" eransten diote.

Oin irregularreko baserria da, hiru isurialdeko teilatupean. Fatxada nagusiarri begiratu ezker, oso ondo antzeman daitezke 1877ko dokumentuak aipatzen dituen hiru aldeak. Fatxada hori

ez dago ohikoa izaten den lekuan eta teilatuaren gailurraren paralelo egin zuten. Ezkerraldekoa da etxeari dagokiona. Baoen antolamendua garbia da. Izan ere, beheko solairuan, atea eta leihoa ditu, biak harlanduzko ertz ederrekin; goikoan, lerrotu gabeko bi leiho; eta gainean, balkoi irtena, zementuzko zorua eta burdin sare duena. Beste bi gorputzetan dauden leihoak aldi desberdinetan zabaldu zirela esan daiteke, ordena jakin barik ageri dira, batzuk harlanduzko ertzeekin, beste batzuetan forro erara erabili zuten harria, eta erdikoetan ertzok pintatu egin zituzten. Ostean ere badu ate ederra, dobelazko dintelduna, dokumentuan aitatzen den kortakoa izango zena. XIX. mendeko eraikina da ezbairik gabe, luzituta egon zena bere garaian, orain harlangaitza bistaratu badiote ere.

toponimia

Berrizbeitia etxearen ondoan eraikitako etxea.